



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 6a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (3. or.).
- Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldiarako. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuak kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurriak har ditzan beren bezeroei partaidetza lehenetsiak eskaintzen dizkieten entitate finantzarioei dagokienez. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako mozioan adierazitakoa, osasun sistema publikoan haurdunaldia borondatez eteteko aukera eskaintzeari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zuzen dezan kultur arloari dagokion BEZA igotzeari buruz hartutako erabakia. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-instalazio publikoei buruzko plan bat aurkez dezan, Sarrigurenen gaur egun dauden eta epe ertain eta epe luzean egonen diren eskolatzeharriazanei erantzute aldera. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari proposamen bat helaraz diezaion iruzur fiskalaren aurkako estrategia publiko bati buruz. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du iruzurraren aurkako eredu berri baten aldekoa dela. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita mantentzeko. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza entitateekin dituen harreman operatiiboak berrazter ditzan. Mozioa erretiratzea (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, “itzaleko bidesariak” izenekoaren administrazio-emakidei buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin (12. or.).
- Galdera, jakiteko noiz aplikatuko duen Nafarroako Gobernuak pentsiodunen farmazia-gastuaren aldaketa, Roberto Jiménez Alli jaunak egin (12. or.).
- Galdera, uztailaren 6ko 250/1992 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa. Dekretu horren bidez zehazten da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamendutik heldu diren dirusarreraren eta gastuen araubidea. Marisa de Simón Caballero andreak egin (13. or.).
- Galdera, jakiteko zer ekinbide hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Gutxituen Itunaren jarraipen txostena argitaratu ostean, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Ogasunaren kontu publikoen egiazko egoerari buruzko ikerketa batzordea. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).
- Nafarroako kontuen egiazko egoerari buruzko ikerketa batzordea. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Ezkerra parlamentu-taldeak testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa.

Horri horrela, Legebiltzarreko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek ondoko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako."

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordera igorri da.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroako Gobernuko kideen ordainsari osagarriak bertan behera uzteari buruzko Foru Lege proposamena.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekaina-

ren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen

duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua

aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek aurkeztu eta 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan beren bezeroei partaidetza lehenetsiak eskaintzen dizkieten entitate finantzarioei dagokienez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan beren bezeroei partaidetza lehenetsiak eskaintzen dizkieten entitate finantzarioei dagokienez."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Nafarroan dauden finantza-entitateekin, entitate horiek akordio bat lortze aldera partaidetza lehenetsiak dituzten bezeroekin, halako moduan non hasiera batean inbertitutako kapitala berreskuratu ahal izanen baitute kaltetutako herritarrek.

2.- Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta Nafarroako Fiskaltzari helaraz diezaien ikertu

egin beharra dagoela Foru Komunitateko herritarrekin partaidetza lehenetsien kasuan egindako ustezko abusuak.

3.- Kaltetuei laguntza eskaini diezaien Kontsumo Zerbitzuaren bitartez, kaltetuek doan jaso ahal dezaten informazioa eta laguntza espezializatua.

4.- Foru Komunitatean dauden finantza-entitateekin hemendik aitzina sinatzen dituen hitzarmen, akordio edo gisakoetan jaso dadin nahitaez ezarri behar direla klausulak, ziurtatuko dutenak akordio horietatik heldu diren produktuak eta zerbitzuak erosten dituzten herritarrek informazio zuzen eta zehatz guztia jasoko dutela, ahoz eta idatziz, halako moduan non ulertu ahalko baitute zein den jasotako produktuen edo zerbitzuen egi-azko izaera, batez ere finantza-kulturarik gabeko pertsonen kasuan, eta edozein dokumentu sinatu aurretik betiere."

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako mozioan adierazitakoa, osasun sistema publikoan haurdunaldia borondatez eteteko aukera eskaintzeari buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako mozioan adierazitakoa, osasun sistema publikoan haurdunaldia borondatez eteteko aukera eskaintzeari buruz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du 8/12/MOC-00027 mozioan adierazitakoa. Mozioa Parlamentuaren 2012ko maiatzaren 10eko Osoko Bilkurak onetsi eta oso-osorik –hiru puntuak– argitaratu zen maiatzaren 17ko Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean.

2. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legearen erreforma egite aldera Alderdi Popularrak baliatu nahi dituen irizpideak, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak larriki urratzen dituen atzerapen sozial onartezina dakartelako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentu honen gehiengoaren eta Nafarroako herritarren gehiengoaren borondatearen arabera jarrera eta jokatzea har ditzan Hartara, Nafarroako Gobernua premiatzen dugu emakume nafarren eskubideak defenda ditzan eta Alderdi Popularrak egin nahi duen erreforma Nafarroan aplikatzearen aurka azal dadin.”

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zuzen dezan kultur arloari dagokion BEZa igotzeari buruz hartutako erabakia.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da zuzen dezan kultur arloari dagokion BEZa igotzeari buruz hartutako erabakia”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Kulturaren sektoreak oro har bizi dituen une zailak ikusita, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturaren arloko

BEZa ehuneko 21era igotzeko erabakia zuzen dezan eta aintzat har dezan sektoreak ia ahobatez egiten duen eskaria, BEZa nabarmen jaisteko.”

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion taxututako politika aldatzea, sektoreari oro har ezarritako ehunekoa nabarmen jaistea; izan ere, ezagutu diren datuen arabera, kultur jarduerak jaitsi egin dira oro har Nafarroan 2011n, krisiaren ondorioz.”

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-instalazio publikoei buruzko plan bat aurkez dezan, Sarrigurenen gaur egun dauden eta epe ertain eta epe luzean egonen diren eskolatzeharrizanei erantzute aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-instalazio publikoei buruzko plan bat aurkez dezan, Sarrigurenen gaur egun dauden eta epe ertain eta epe luzean egonen diren eskolatzeharrizanei erantzute aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean hezkuntza dotazio publikoen plan bat aurkez dezan –azpiegiturak eta baliabideak eraikitzeari dagokionez– gaur egun dauden eta epe ertain eta luzean egonen diren eskolatzeharrizanei erantzuteko, Sarrigurengo herrian, eskola-adinean dagoen biztanleriaren premien arabera eta Sarrigurengo udalez gaindiko proiektu sektorialean jasotako dotazio-konpromisoen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sarrigurengo ikastetxe publiko batean haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe bat segurta diezaien halakorik eskatzen duten ikasle guztiei, datorren ikasturterako eta hurrengoetarako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren ekintzak gauzatu ditzan, zertarako eta, bi urteko epean, pixkanaka, erantzuna emate aldera 0-3 urteko ikasleak Sarrigurenen eta ikastetxe publiko batean eskolatzeko eskari guztiei.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sarrigurenen bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dezan, bertan derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko irakaskuntzak eskaintzeko.”

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari proposamen bat helaraz diezaion iruzur fiskalaren aurkako estrategia publiko bati buruz.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2012ko urriaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari proposamen bat helaraz diezaion iruzur fiskalaren aurkako estrategia publiko bati buruz.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzar honi hiru hilabeteko

epean aurkez diezaion Iruzur Fiskalaren aurkako Estrategia Publiko bat, eztabaidatzeko eta onesteko. Gobernuak ekarri nahi dituen proposamenez gain, estrategia horrek ondokoak jaso beharko ditu:

a) Iruzur fiskalaren aurkako zuzendaritza nagusi bat sortzea. Zuzendaritza hori Ekonomia Departamentuaren mende egonen da, eta zeharkako ikuspegia izanen du Gobernuaren barruan.

b) Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta materialak areagotzea –egungoak ez dira aski–, bultzada handi bat emateko iruzur fiskala detektatu eta jazartzeko lanari, eta jarduketak azken bururaino eramatea.

c) Dauden iruzur mota eta errealitate ezberdinak aztertzeko, detektatzeko eta jazartzeko estrategia egoki bat onestea.

Iruzur fiskalaren gune nagusiak identifikatzea, horietan jartzeko lehentasuna.

d) Helburu zehatz eta neurgarriak ezartzea, taxututako strategiaren ebaluazio eraginkor bati ekin ahal izateko. Eta horren jarraipena egitea.

e) Ezkutuko ekonomia detektatu eta horren gainean jarduteko berariazko plana.

f) Ezarritako neurri fiskalen behar bezalako eta egiazko aplikazioaren jarraipena eta kontrola, horien bidez lor baitaitezke kenkariak, salbuespenak, diru-laguntzak eta onura fiskalak.”

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du iruzurraren aurkako eredu berri baten aldekoa dela.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2012ko urriaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du iruzurraren aurkako eredu berri baten aldekoa dela.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela iruzurraren aurkako borrokaren jarduketa-eredu berri bat jorratzea, UPNren gobernuaren ereduaz bestelakoa, iruzur fiskalarekiko zero tolerantzia eta eraginkortasunean oinarrituta.

2. Horretarako, Nafarroako Parlamentuak uste du iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu beharra dagoela, eta plan horrek ondokoak jaso behar litzukeela:

– Helburu zehatz, neurgarri eta ebaluagarrieki-ko estrategia baten diseinua.

– Egungo aurrekontua bikoiztea.

– Iruzurraren aurkako borrokara bideratutako ikuskatzaileen kopurua bikoiztea 2013an zehar.

– Berariazko giza baliabideak eta baliabide teknikoak jartzea, iruzur fiskaleko gune jakin batzuk azalerarazteko.

– Tributu arloko betebeharrak betetzeari dago-kionez herritarren erantzukizunerako estrategia irmo bat taxutzea, hezkuntza arloko eta sentsibilizazio arloko ekimenen bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa eta premiazkoa dela iruzurraren aurkako berariazko zuzendaritza nagusi bat sortzea Nafarroako Gobernuaren barruan.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du egungo legediak sortzen duen asimetriaren eta bidegabekeriaren aurka dagoela, zeinak delitu fiskaltzat hartzen baititu urte berean eta zerga bakar batean 120.000 eurotik gora egindako iruzurrak, eta egoera hori aldatzeko konpromisoa hartzen du.”

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita mantentzen.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2012ko urriaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita mantentzen."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita mantentzen, azken 26 urteotan lan bitartekaritza eta adostasuna bilatzen emandako zerbitzuari euste aldera."

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza entitateekin dituen harreman operatiboak berraztertzen.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroa Bai parlamentutaldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen finantza entitateekin dituen harreman operatiboak berraztertzen.

Mozio hori 2012ko maiatzaren 25eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, “itzaleko bidesariak” izenekoan administrazio-emakidei buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, “itzaleko bidesariak” izenekoan administrazio-emakidei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andreak hilaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du “itzaleko bidesariak” izenekoan administrazio-emakidak ebaluatzeko, aldatzeko edo zuzentzeko asmorik, azterlanik edo erabakirik, Nafarroako aurrekontuei begira dakarten zama arintzeko?

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, jakiteko noiz aplikatuko duen Nafarroako Gobernuak pentsiodunen farmazia-gastuaren aldaketa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko noiz aplikatuko duen Nafarroako Gobernuak pentsiodunen farmazia-gastuaren aldaketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den azaroaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak noiz aplikatuko du Legebiltzar honek pentsiodunen farmazia-gastuaren koordainketaren aldaketari buruz orain dela gutxi onetsitako legea?

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

**Galdera, uztailaren 6ko 250/1992 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa.
Dekretu horren bidez zehazten da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamendutik heldu diren diru-sarreraren eta gastuen araubidea.**

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, uztailaren 6ko 250/1992 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa. Dekretu horren bidez zehazten da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamendutik heldu diren diru-sarreraren eta gastuen araubidea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den azaroaren 5eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak orain dela gutxi aldatu du uztailaren 6ko 250/1992 Foru Dekretua, zeinaren bidez zehazten baita Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamendutik heldu diren diru-sarreraren eta gastuen araubidea, halako moduan non beste epe batzuk ezarri baititu ikastetxe publikoen funtzionamendugastuetarako esleipenak egiteko.

Galdera:

Zer dela-eta egin da aldaketa hori? Egungo finantzaketa sistemaren zer irizpenek justifikatzen dute aldaketa hori? Neurri horrek zer onura dakarke ikastetxe publikoei, beren jarduna behar bezala garatzeari begira?

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakiteko zer ekinbide hartzeko asmoa duen Nafarrako Gobernuak Hizkuntza Gutxituen Itunaren jarraipen txostena argitaratu ostean.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer ekinbide hartzeko asmoa duen Nafarrako Gobernuak Hizkuntza Gutxituen Itunaren jarraipen txostena argitaratu ostean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak diotenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hizkuntza Gutxituen Itunaren jarraipen txostena argitaratu den honetan, zein ekinbide, zein pauso emateko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Ogasunaren kontu publikoen egiazko egoerari buruzko ikerketa batzordea.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 26an egindako bileran, baztertu du Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztutako eskaria, Nafarroako Ogasunaren kontu publikoen egiazko egoerari buruzko ikerketa batzorde bat eratzekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako kontuen egiazko egoerari buruzko ikerketa batzordea.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 26an egindako bileran, baztertu du Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako eskaria, Nafarroako kontuen egiazko egoerari buruzko ikerketa batzorde bat eratzekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

